



Ekipoa	Jauzi-hodi maila-detektagailudunak
Kodea	B-2022
Ingurumen-hobekuntza	Partikulen emisioak prebenitzen ditu, material haustuak kargatzeko, garraiatzeko eta deskargatzeko lanetan.
Honetan datza:	<p>Jauzi-hodiak erabiltzen dira solteko material lodi eta meheak ontzitan, zulotan, kamioitan, bagoitan eta itsasontzitan kargatzeko, eta uhal garratzailebatetik beste batera aldatzeko. Betetzeko hodiak jauzia du barnean, eta jauzihorren ondorioz materiala erortzen eta irristatzen da (txandaka). Altueratikiko erorketen eta norabide-aldaketen ondorioz, zamalanetan ia ez da hautsik sortzen. Maila-detektagailuaren bidez, hodiak automatikoki eusten dio distantzia egokiari, materialaren gainazala erreferentziazat hartuta.</p> <p>Jauzi-hodia erabiltzeko 30 m³/h-ko emaria behar da gutxienez, eta 5.00 m³/h-koa gehienez. Oso dentsitate handiko polietilenoaz, aluminio sinterizatuz, zeramikazko adreiluz eta altzairuz estalita daude, eta material horiek guztiak urradurekiko erresistenteak dira. Egokia da erraz jariatzen diren material solte lodi nahiz haustuekin erabiltzeko. Adibidez: potasa, fosfatoak, aleak, ikatza, kokea, sodio astuna, aluminio oxidoa, zementua, sodio fosfatoa, artoa eta pentsuak.</p> <p>Teknologia honen osagai nagusiak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Betetze-hodi bat. - Barne-jauzi bat (adibidez, txandaka elkarlotutako kono inklinatuak). - Maila-sentsore bat.
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Kanpoan geratzen dira teknologia hori TEO gisa aplikatu beharra daukaten IPPC jarduerak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak. Honako hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eraikinen eraikuntza (NACE: 41.2). - Ingeniaritza zibila (NACE: 42). - Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (NACE: 23). - Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea; balorizazioa (NACE: 38).